

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Tokiko ostalariak izango dira, hau da, joaten garen tokiko jendeak egingo dute herriaren tour-a. Haiek ez badute nahi, langile kualifikatuak ditugu, eta haiei informazioa eskatuz eta zertxobait ikertzen, guk eman ditzakegu zerbitzu guztiak. Garraiatzeko autobus enpresa batekin subkontrata daukagu, eta gure autobusan bakarrik igo daitezke gurekin datozten bidaiariak. Instalazioei dagokionez, gehienetan ostatuetan hartuko dugu ostatu. Gure web orriaren eta telefono-zenbakiaren bidez, zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen diogu bezero bakoitzari.

Gure proiektuak funtziona dezan behar ditugun elementu garrantzitsuenak honela sailka daitezke:

FISKOAK

Elementu fisikoen artean hauek dira garrantzitsuenak:

- Lokal bat, non jendea joango den bidaiak erosteko edo informazioa jasotzeko.
- Ordenagailu bat, lokalean izateko.
- Lokalean egongo diren altzariak.



- **EKONOMIKOAK:**

Hasierako inbertsioa 35000€-koa izango da, eta 5 bazkideek zati bat jarriko dugu. Gaztenpresa 10000€ jarriko ditu ere bai.

- Joaten garenetako udalen finantziazioa.

GIZA-BALIABIDEAK:

- Miguel: Enpresaren kontabilitateaz arduratuko da.
- Javi: Publizitatean eta marketinean oso ona da.
- Asier: Enpresaren kontabilitateaz arduratuko da ere bai.
- Ander: Bezeroekiko herremanetaz arduratuko da.
- Iker: Bulegoko langilea izango da.

INTELEKTUALAK:

- Herri hustuetako turismo-sektorearen ezagutza bakarra daukagu.
- Hirugarren adineko bezeroak erakartzeko moduari buruzko ezagutzak ditugu.

ORDUTEGIA

Bulegoa 9:00tik 13:00ra eta 14:00tik 18:00ra irekita egongo da.

